

MAITASUNA GERRA GARAIAN

Amaia Elorza Arregi, 17 urte

Beasain

Kattalin maitea: 1936-10-15

Bost egun atsedetik gabe ibiltzen igaro ondoren, azkenean mendi magal batera iritsi gara. Bertan kanpadendak jarri eta deskantsatzeko esan digute, bihar egun gogorra izango dela eta.

Nik ez nuen zuri idaztean beste ezertan pentsatzen. Bideko harri eta ekaitz guztiak baino gogorragoa egin zait, pauso bakoitzean zugandik urruntzen ari nintzela pentsatzea. Hostoak mugiarazten dituen haizean zure xuxurla entzuten dut, eta bilatzen zaitut, baina ez zaude han... Bihotzeko taupada bakoitzak zure oroitzapenak dakarzkiz. Bihar egun gogorra izango da, are gogorragoa zu gabe.

Ezin zaitut ahaztu.

Kristobal: 1936-10-30

Zure eskutitza ikustean bihotza geratu egin zait. Berriri etxean bazeunde bezala izan da, momentu batez. Orain dela bi aste abiatu zinen baina 2 urte direla ematen du. Hemen ezer ez da berdina zu gabe.

Eguna sukaldean eta etxeko lanetan pasatzen dut, eta leihotik begira, eta zugan pentsatzen...

Amak sekulako eztul itsusia du, baina medikua-renera joan naizenean gerrara joana zela esan didate. Plazako Maritxuk belar batzuk eman dizkit, on egingo diotela eta... Ai maitea, nola botatzen zaitudan faltan. Mendi horietan ondo egongo ote zara?

Kattalin:

1936-11-24

Zure eskutitzak bizia alaitu dit. Orriak sudurra-rekin laztandu eta zure usain gozoa nabaritzean, izarren azpian nire alboan zeundela zirudien. Ez dakizu nola somatzen dudan zure falta. Eman zenedan argazkia ia ikusezin dago, begiratu dudan guztiaren ondorioz.

Egun gris hauetan zu hor zaudela pentsatzeak indarra ematen dit, gosea apaldu eta gerra jasaten laguntzen dit.

Aurreko egunean errepublikarrekin sekulako borroka eduki genuen, gizon bat hiltzekotan egon nintzen baina ezin izan nuen. Beldurrak gorputza hartu eta ez zidan fusila tirokatzen utzi. Gauean negar egin nuen: ia hil nuen gizonagatik gerragatik, zuregatik... Ea hau dena lehenbailehen amaitzen den eta berriro ere elkartzen garen.

Agur maitea.

Nire bihotzeko Kristobal:

1936-12-01

Bada hilabete eskutitza bidali nizula eta ez dut zure berririk. Non zaude? Sukaldeko leihotxoa

lurrindurik dago nire hatsaz, zure irudia bidean gora noiz ikusiko igarotzen baitut gau eta egun. Amak gerra garaia dela eta lana egin behar dela dio. Ai Kristobal! Zure faltak ez dit bizitzen uzten. Etorri azkar, mesedez.

Ahaztu ezin dudan Kattalin hori! 1937-03-23

Herenegun herrixka batera iritsi ginen, eta bertan niri eta beste lauri etxe bat utzi digute. Bertako alaba eskaini egin zaigu diru apur baten truke. Dirurik ez dudala eta kalera irten naiz.

Bihotza uzkurtuta daukat zu nola egongo zaren imajinatzen. Ea gure baserriak zutik jarraituko duen galdetzen, bertako paretak zure algarak entzuten jarraituko duten pentsatzen. Noiz amaituko ote da gerra hau? Zergatik ez didazu erantzun, Kattalin? Zerbait gertatu zaizu? Zer egin dizute?

Bihar Burgos aldera joango gara, jendea behar dutela eta. Baina bertan amaitutakoan etxera itzultzen uztea espero dut. Zurekin egon gabe egun bat gehiago pasa behar dudala pentsatzea jasanezina da. Ezin duzu pentsatu ere egin zenbat maite zaitudan.

Kristobal: 1937-06-17

Non zaude Kristobal? Orain dela astebete errepublikar talde bat sartu zitzaigun baserrira eta genuen guztia kendu ziguten. Ez dugu janaririk, herria hiltzen ari da. Jendea itxaropena galtzen ari da. Aliziaren semea eraman dute frontera, Madrilen dago. Alkatearen semea akabatu egin

dute, errepublikarrekin tratuetan ibiltzen omen zela eta. Zuri ez al zaizu ezer pasako?

Gaur goizean karta batzuk jaso ditut, ez zegoen zurerik. Ezin al duzu idatzi? Ez al nauzu maite jada? Zer gertatu zaizu? Mesedez, erantzuidazu! Badakizu nik hemen itxarongo dizudala. Ez naiz joango. Inoiz ez.

Kattalin: 1937-09-10

Ia urtebete pasa da etxetik joan nintzenetik eta ez dakit ezer zuri buruz. Zergatik ez didazu erantzuten? Jada 21 eskutitz idatzi ditut, denak zuretzat, non dago erantzuna? Ahaztu egin nauzu? Zerbait gertatu al zaizu? Ondo zaude?

Frontera bidali nahi naute. Burgos inguruan ondo ibili naizela eta orain frontera. Gizon asko hil ditut jada eta ez dago gaurik burukoa bustitzen ez dudarik. Egunak dira ez dudala apenas jaten, ez edaten, ez sentitzen... Jada ez naiz pertsona, Kattalin. Tiro hots bakoitzak, bonba bakoitzak zure irudiak dakarzkite burura, ondo zauden, bazauden... Ezin dut lorik egin Kattalin, ezin dut jasan. Egunero ikusten dugunak negargura ematen dio edonori, hildakoak edonon, fusilak tiroak... eta ona ez da inon ageri. Nola iritsi gara egoera honetara? Kanean jendea triste dago, errepublikarrak triste daude, gu triste gaude... Zergatik jarraitzen du orduan gerrak?

Kristobal: 1937-11-10

Atzo desertore batzuk aurkitu nituen iturri ondoan, baserrian ezkutatu dira. Frantzia aldera

doaz eta ama eta biok beraiekin joatea nahi dute. Nik itxaron nahi dizut, baina, merezi al du? Oraindik bizirik al zaude?

Nire bihotza jada harrizko bilakatu da. Ez dut sentitzen, ez pozik ez tristurarik. Nekea. Besterik ez. Neke handia, Kristobal, egunero sukaldeko leiho ondoan jarri eta itxarotearen nekea, erantzunik gabeko eskutitzak idaztearen nekea, zure faltak sortzen didan mina jasatearen nekea. Eta oso nekatuta nago, Kristobal.

Iheslariak oraindik denbora batez geratuko dira, tropak dabilta inguruan. Baina nire nekeak... ez dakit askoz gehiago itxaron ahalko duen.

Kattalin:

1938-01-31

Hiru ume hil ditut Kattalin. Inongo kulparik ez zuten hiru ume akabatu ditut. Oheratzean ez dut nagarrik egin. Jada denak berdin dit. Zu ez zaren beste guztiak ez dit axola. Ofizialak gerra amaitutakoan domina bat emango didala esan dit, aberriarengatik egiten ari naizen lana dela eta. “Zer lan?” erantzun diot nik.

Atzo zure urtebetetzea zen. Arrosa hartu nuen zuretzat, sasi artean ezkutaturik zegoen bat, baina ez dakit nola bidali, eskutitzak soilik onartzen dituzte postako kanpadendan. Patrikan gordeta daukat, etxera itzultzen naizen egunean zuri emateko. Hor egongo ote zaren ez dakit. Atzo hortik zetorren patruila batekin egon ginen eta sekulako sarraskiak egin zirela kontatu ziguten. Herriak erdi

hutsik zeudela, gurasorik gabeko ume asko zegoe-
la eta gosea zabaltzen ari zela. Zu ondo egongo ote
zara? Zure erantzunen bat jasotzeko ez dut galdu
oraindik, baina... zaila da.

Kristobal:

1938-06-15

Juanitaren bi semeak hil dira, baina ez dituzte
gorpuak bidali behar. Desertoreak Frantziara abia-
tu dira. Ni Juanitari gauzak jasotzen laguntzera
geratu naiz. Ahizparenera doa, Bilbo ingurura,
han seguruago omen daude.

Ezkontzako soinekoa jantzi nuen atzo arratsalde-
an. Ez dut betetzen. Ez dago janaririk eta ama
ohean daukat aspalditik. Jada ez naiz sukaldeko
leihoan itxaroten egoten. Ez dut egun osoan zehar
zugan pentsatzen, Kristobal. Ez dut indarrik. Ez
dut itxaropenik. Ama egunetik egunera okerrago
daukat, honela jarraitzen badu, Donostiara joango
naiz, izebarenera. Zure erantzunen bat jasotzeko
gogorik ere ez dut. Egia esan, ez dakit zergatik
idazten dizudan. Eskutitz hau bidaliko dudan ere
ez dakit.

Gogoa galdu dut Kristobal, bizitzeko gogoa.

Kattalin:

1938-12-18

Ofizialak esan dit hurrengo hilabetean etxean
izango naizela. Hori entzutean nire gorputzean
hotzikara arraro bat sentitu dut, poza zela kontu-
ratu naiz. Bi urte eta erdian gerran egon eta gero
ahaztuta nengoen. Zure gorputza berriro ere nire
besoetan edukiko dudala pentsatzean oilo-ipurdia

jartzen zait. Zure ile leuna laztantzeko dudan gogoia sekulakoa da. Gauak ederrak bilakatu dira berriro ere.

Kostaldean garaipen ugari lortu ditugu. Tropak orain frontera datoz laguntzera, errepublikarrak ahuldurik daude eta aprobetxatu beharra dago. Aurreko astean bala batek orkatila ondotik igaro eta zauri bat egin zidan. Ospitalean egon nintzen 3 egunez.

Eskutitzak ahaztu ditzagun! Hortxe izango naiz laister, Kattalin! Akabo penak! Zure ama hartu eta Frantziara joango gara, kostaldera. Iturgin hasiko naiz, edo arotz, edo jainkoak daki zer. Ene Kattalin, hau da poza!

Kristobal:

1939-02-22

Ama hil zen atzo. Joxeri deitu diot gorpua lurperatzen laguntzeko. Baratzan lurperatu dugu. Herrian ez dago inor dagoeneko. Joxe, Zurutuza familia eta beste gutxi batzuk. Beste guztiak joanak dira. Nik ordea ez dut kemenik. Ez dut janaririk, putzuan ez dago urik. Eta ez zaude zu.

Orain sutondoan nago, nire zapata zaharkituak begiratzen. Abiatu baino lehen oparitu zenizkidanak dira, joan zinenetik ez ditut aldatu. Orain ez daude berri, apurtuta eta zikindurik daude. Ni bezala. Ez dut eskutitzarekin jarraitzeko indarririk...

Kattalin:

1939-03-31

Gerra irabazi dugu!! Bihar etxera noa. Arrosa oraindik patrikan daukat, zimelduta dago eta gaur

goizean azken hostoa erori zaio. Berdin dit.
Eraman egingo dizut halere. Maite zaitut!

Kristobal:

1939-04-01

Asko sentitzen diat esatea, baina gaur goizean, hire etxera joatean, Kattalinen eskutitz bat bilatu diat. Bere burua putzura bota dik. Ez dakik ze inpresioa egin didan niri ere. Gorpua atera eta baratzean lurperatu diat, bere amaren ondoan. Neska lur jota zegoan azken egun hauetan, hori egia duk. Baserrian ez duk ezer asko aurkituko, ez zegok janaririk herrian. Soilik ezkondu zineteneko Kattalinen soinekoa zegok bere ohe gainean.

Gerra bukatu dela eta Baiona aldera joan beharrean nagok, han lagun bat zeukaat eta denboraldi batean berarekin joateko proposatu zidak. Beste orrian helbidea utzi diat etorri nahi baldin baduk, hor baserrian ez daukak eta ezer asko egiteko.

Bihotzez sentitzen diat, benetan.

JOXE